



Lauaxetaren gabardina

Idoye Errazti Olartekoetxeak aipatu zuenez (ezkerrean ageri da, Literaturiaren kartelaren aldamenean), beti jakin zuten beren arropa artean zintzilika ageri zen gabardina hura berezia zela. Aitaren ardura ez ezik, etxeko guztien eginkizuna zela jantzi hura zaintzea.

ZER OTE DA gabardina bat norberarentzat. Zer izan liteke, udazkeneko egun euritsuetan ikusi ohi den jantzi harago. Modaren esanetara joan eta etorri den osagarri berrasmatua. *British* estiloaren ikonoa. Nobela beltzetako gangster tiro zaleen eta detektibe gogortuen uniforme tipifikatua. Columbo tenientearen elementu bereizgarrietako bat. Zinema klasikoko izarrak –Humphrey Bogart, Marlene Dietrich, Audrey Hepburn– nahiz haiek protagonizatutako filmak antzeratzeko modua. Bakarren baten oroigarria...

Txaber Erraztirentzat, jantziak berak izan lezakeen zentzua bazterrera utzita, bizitza osoko ardura isila izan da, erantzukizun sekretua, “zerutik erorita bezala” jasotako gabardina hura gordetzea eta 40 bat urtez erlikien pare babestea. Hitz bakarrean eta letra larriz esanda, misioa. Ez baitzen edonolokoa. Ez baitzen edozeinena. Gabardina hura –Erraztik Emakume Abertzale Batza elkarte kide Concha Azaolari erreleboan hartutako jantzi hurafusilamentu pelotoiaren aurrean jartzera zihola erantzi baitzuen Estrean Urkiaga *Lauaxeta*-k, 1937ko ekainaren 25ean argitutako egunsenti makabro hartan.

Merezi zuen arretaz eta tentuz zainduko zuelakoan helarazi zitzaion Erraztiri. Haren jabea mutiko zenetik ezagutu eta miretsi zuelako –“izar bat zen”–. Mendirako zaletasunak, Mendigoizaleak elkartek, batu zituelako. Gerora, bere idatziak ere irakurri eta gozatu zituelako. Haren “euskara garbia” goratu zuelako.

Ekainaren lehenean sekretu izateari utzi eta jendaurreko aurkezpena egin zuten biek Larrabetzun. Zutikako esekigailu batean ondo botonatuta ageri zen bata. Eta tente, bete, handi, hauspotu, imitatzen zaila den lur kolorea irradiatuz, jabearen falta salatuz, denborari muzin eginez.

Apalago ageri zen bigarrena, haren urte luzetako zaindaria. Makur, hauskor, hitz egiteko indarrak ere neurtu beharrean, 88 urtetako martxak akituta, denboraren jazarpenari plegatuta ia. Tinko, ordea. Eta alai. Eta lasai, bizitza erdian bere gain izan duen misioa konplututa.

Bien bistaratzeak, bien konplizitateak, omenaldi ezin egiatziagoa eskaini dio poetari. Eta balio erantsia, Literaturiari.



Garbine Ubeda Goikoetxea